



## **BERMEO FUTBOL TALDEA**

### **LAGUNTZA ESKAERA (I. eranskina)**

Bermeo Futbol taldeko bazkide eta jarraitzaile agurgarriak:

Bermeo Futbol Taldea osatzen, jarraitzen, eta orokorrean, Itxas Ganeko Udal kirol instalazioak erabiltzen dugun guztiok badakigu instalazio hauen gaur egungo egoera txarraren errealitatea zein den.

Itxas Ganeko instalazioak, gaur egun ezagutzen ditugun moduan, 1985 urtean inauguratu ziren, orain dela 34 urte. Sasoi hartan futbolerako goi mailako instalazioak ziren, baina gaur egungo jokalarikopurua eta futbolaren beharrak asetzeko erabat zaharkituta geratu dira, are gehiago, Bizkaiko Futbol Federazioak eta Eusko Jaurlaritzak honelako kirol instalazio motarako agintzen duten nahitaezko arauak ez betetzeko zorian daude.

Bermeo Futbol Taldearen helburu nagusia herriko futbolzale guztiei kirola egiteko aukera erraztea da, horregatik, taldeak finantzatzen, prestatzen eta eurentzako ekipamenduan erabiltzen ditugu dauzkagun baliabide eskas guztiak. Gure nahia da gure gazteen kirol ibilbidea ahalik eta luzeena izatea, horrela euren bizitza ohitura egokiak sustatzeko.

Gaur egun, 20 futbol talderi kalitatezko zerbitzua eskaintzen saiatzen gara. Hauek dira datuak:

- ✓ 184 neska- mutil Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirol programa barruan, kadete mailara artekoak.
- ✓ 110 kirolari Bizkaiko Futbol Federazioaren hainbat lehiaketetan, gazte mailara arte.
- ✓ 60 jokalaririk hiru talde seniorretan, gizonezko eta andrazkoenak.
- ✓ 125 gaztetxo *futbol eskolan*.

Aurreko datuak ikusita, ia 500 kirolari ditugu taldean eta 500 kirolari horiek dira Itxas Ganeko instalazioak erabiltzen dituztenak.

Gure esku dagoen guztia egiten dugu gure kirolarien entrenamendu saioak egoki antolatzeko eta taldeek jokatzeko ortutegiak astero prestatzeko, baina gure instalazioetan arazo larriak dauzkagu, hala nola, zelaien egoera txarra eta jokatzeko eta entrenatzeko dagoen leku falta. Zer esanik ez egunero ditugun arazo eta gabeziei buruz: drenajearen trabak, argiteriak izaten dituen matxurak, Itxas Gane futbol zelaia, Matxixako bidea z.g., 71 posta kutxa, 48370 Bermeo (Bizkaia)

kirolariak dutxatzeko ur bero falta, aldagela zaharrak, itoginak eta abar. Instalazioak aspalditik daude amortizatuta, haien baliozko bizitza guztiz gaindituta dute, eta honekin batera, erabilera edukieraren mugara heldu direla nabarmen ikus daiteke.

Gure ustez, eta gure kirolarien ilusioa eta egiten duten ahalegina kontuan hartuta, merezi dute instalazio egokiak edukitzea. Horrez gainera, eta bermeotarrok futbolerako kirol instalazio egokiak behar ditugulako, Itxas Gane udal kirol instalazioaren berrikuntza sendoa egiteko Inbertsio Plan bat lantzea behar-beharrezkoa eta premiazkoa da.

Horretarako da gure dei hau: zuen laguntza eskatzeko, eta eskari hau zuen sinadurekin batera, benetan zeozer egiteko eskumena daukaten estamentu guztien eskuetara helarazteko. Ez dezaten ahaztu Itxas Ganeko udal Instalazioak bertan daudela eta jakin dezaten zein egoera larritan dauden. Azken batean, hurrengo urteetako udal aurrekontuan ganorazko PLAN BERRIZTATZAILEA egituratu behar dela jakin dezaten.

Lagundu kirolariei, lagundu guri, eta ados bazaude, ohiko lekuetan aurkituko dituzun eskari orrietan sinatu.

Sinadurak batu eta gero, Itxas Ganeko udal kirol instalazioak berritzeko plan orokor bat egiteko eskaera Bermeoko Udalari, Kirol Patronatuari eta Bermeoko alderdi politiko guztiei bidaliko diegu.

Eskerrik asko.